



Agiri-mota: **Erdibideko zuzenketa**
Data: 2025-03-03
Nori zuzendua: BNetako Mahaiari
Aurkezleak: Maddalen Iriarte, Mikel Lezama eta Miren Echeveste.
Batzarkide taldeak: Euskal Herria Bildu, Talde Popularra eta Elkarrekin Gipuzkoa Batzarkide Talde Mistoa.

IZENBURUA

Erdibideko zuzenketa, Ordizia eta Zaldibia lotuko dituen bide berdea gauzatzeari buruz Batzarkide talde Popularrak Osoko Bilkuran eztabaidatu izan dadin aurkeztutako ebazpen proposamenari.

ZIOA eta/edo AURREKARIAK

Hobesten dugu testu hau.

IZENBURU BERRIA

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru sarearen Ordizia eta Zaldibia arteko tartea gauzatzeari buruzkoa.

ZUZENKETA


Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diote bete dezala Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana 2013-2021 eta, zehazki, Ordizia eta Zaldibia arteko Foru Sareko bidegorria burutu dezala, horretarako, aurtan bertan hasiera emanez eraikuntza lanei.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diote sustatu eta azter ditzala tarte estu edo zailenarako dauden irtenbide guztiak, ahalik eta zabalera handiena emanez eta bereizitako tartetak lehenetsiz, bizikleta bide honen amaiera oraindik gehiago ez atzeratzeko.


Proposatzailearen sinadura


Maddale Iriarte Okiñena
Euskal Herria Bildu Batzarkide Taldea

Proposatzailearen sinadura


Mikel Lezama Zubeldia
Batzarkide Talde Popularra

Proposatzailearen sinadura


Miren Echeveste Lacombe
Elkarrekin Gipuzkoa Batzarkide Talde Mistoa.